



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIARIEN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?”

2024ko martxoaren 24a  
Erramu Igandea (B)

Markos 14, 1-72; 15, 1-47 (Gomendagarria da Jainkoaren Pasio osoa astiro irakurtzea)

Eguerdian, ilundu egin zuen lurbira osoan hirurak arte. Hiruretan, Jesusek oihu handiz esan zuen: “Eloi, Eloi, lama sabaktani?” (Hau da: “Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?”).

Hau entzutean, bertan zeuden batzuek esan zuten: “Eliasi deika ari duk”.

Orduan, batek, lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, edatera eman zion, esanez: “Egon, ea datorkion Elias gurutzetik eraistera”.

Baina Jesusek, deiadar handia eginez, azken arnasa eman zuen. Orduan, santutegiko oihala erdiz erdi urratu zen, goitik behera.

Aurrean zegoen erromatar ehuntariak, nola hil zen ikustean, esan zuen: “Zinez, gizon hau Jainkoaren Semea zen”.

Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?

### BIKTIMEKIN BAT

Jose Antonio Pagola

Ez Erromako botereak, ez Tenpluko agintariak jasan izan zuten Jesusek ekarritako berritasuna. Arriskutsua zen Jainkoa ulertzeko eta bizitzeko Jesusen era. Ez zuen defenditzen Tiberioren inperioa, **guztiei egin zin dei Jainkoaren erreinua eta haren justizia bilatzera**. Ez zion axola larunbataren legea eta tradizio erlijiosoak haustea; **Galileako gaixo-jendearen eta jatekorik gabearen sufrimendua arintzea zuen kezka bakarra**.

Ez zioten barkatu hori. Sakonegi egin zuen bat inperioko biktima errugabeekin eta tenpluko erlijioak ahantziak zituenekin. **Gurutzean errukirik gabe iltzatua den horrengan agertzen zaigu orain Jainkoa, historian izan diren biktima guztiakin bat egin duen horrengan. Horien guztien oihuarekin bat egiten du orain Jainkoaren beraren oinaze-oihuak**.

Gurutziltzatuaren aurpegi desitxuratuaren harrizten gaituen Jainkoa agertzen zaigu, Jainkoaz ditugun irudi konbentzionalak hausten dituena: jenderik ahulena eta babesik gabeena gurutziltzatuaren jarraitzen duen munduko drama ahaztuz, Jainkoari kultu eman nahi izatearen jarduera koloka jartzen duen Jainkoa da.

**Jainkoa biktimekin bat eginez hil bada, haren gurutziltzatzea erronka kezagarria da Jesusen jarraitzaileentzat**. Ezin bereizi dugu Jainkoa errugabeen sufrimendutik. Ezin adoratu dugu Gurutziltzatua eta bizkarra emanez bizi goseak, gerlak, miseriak joa den hainbat eta hainbat jenderen sufrimenduaren aurrean.

Jainkoak guztiok interpelatuz jarraitzen du gure egunetako gurutziltzatuaren larrutik. Ez dugu zilegi egundoko sufrimendu horren ikusle bezala bizitzen jarraitzea, geure inguruan errugabetasun-ilusio geldo bat elikatuz. Matxinatu egin behar dugu ahaztearen kultura horren aurka; gurutziltzatuengandik apartatzeko bidea ematen baitugu, munduan den sufrimendu zuzengabe hori «urrunera» bidaliz, han oihurik, lanturik, intzirik ateratzen ez duela.

Ezin hesitu gara geure «ongizatearen gizartean», «gaizki izatearen beste gizarte» horretaz ahaztuz, zeinetan milioika gizaki jaiotzen baita, soilik heriotza izan den bizitzako urte gutxira erabat akabatzeko. Ez da gizatasunezkoa, ez kristaua, geure burua segurtasunean kokatzea, soilik bizitza segurtasunik gabe eta mehatxatua ezagutzen dutenez ahazturik.

**Kristauek, Gurutziltzatuari aurpegira begira jartzen garenean, Jainkoaren maitasun ezin atzemana kontenplatu dugu, gure salbaziorako emana izan baita hura heriotzaraino**. Patxadago begiratzen badiogu, aisa aurkituko dugu aurpegi horretan beste gurutziltzatu asko eta askoren aurpegia: gugandik hurbil edo urrunago, gure maitasun solidarioa eta errukibera eskatzen ari direnen aurpegia.